

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan laguntza pertsonala eskainiko diogu gure bezeroei, gure zerbitzuak guztiz pertsonalizatuak direlako. Gure bezeroekiko harremanak oso estuak izango dira, baina laguntza pertsonalez gain, zerbitzu automatizatuak ere izango ditugu. Zerbitzu automatizatu hauek online hartuko dezakete, hau da, gure web-orrian hainbat dieta aurkituko dituzte eta entrenamendu planak proposatuko ditugu (klaseak presentziala ezin badira izan). Gainera, lehen esan dugunez, bezero batek beste lagun batzuk ekartzen baditu, deskontuak izango ditu, horrela jende gehiago motibatuko ditugu.

